

IRAGARKIA, Óscar Brave Gómez jaunak eskatuta hasi den 522/04 erreferentzia zenbakiko espedienteen berari egindako errekerimendua jakinarazteko dena. Errekerimendu hori Norberaren Datuen Babeserako abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan azaltzen diren eskubideak betearazteari buruzkoa da. 1119

#### **GARRAIO ETA HERRI LAN SAILA**

IRAGARKIA, Lurreko Garraioen Antolamenduari buruzko uztailaren 30eko 16/1987 Legean ezarritakoa hausteagatik zehapen-espedienteak irekitzen dituzten Garraio eta Herri Lan sailburuordearen ebazpenak jakinarazteko dena. 1120

IRAGARKIA, Lurreko Garraioen Antolamenduari buruzko uztailaren 30eko 16/1987 Legean ezarritakoa hausteagatik irekitako zehapen-espedienteen gaineko ebazpen-proposamenak jakinarazteko dena. 1121

IRAGARKIA, Lurreko Garraioen Antolamenduari buruzko uztailaren 30eko 16/1987 Legean ezarritakoa hausteagatik zehapen-espedienteen gainean Garraio eta Herri Lan sailburuordeak emandako ebazpenak jakinarazteko dena. 1123

#### **BASAURIKO UDALA**

IRAGARKIA, Alkatezaren 2004ko abenduaren 28ko 7410 Dekretuaren bidez, Lan Leku SLLko Construcciones Kurtxes, SL enpresak HAPOk bidez bizitegiarako lurzoru urbanizagarriaren «B Kalero-Basozelai» izeneko banaketa-arean sustatutako B-19 jarduera asistematikoari buruzko xehetasun-azterlana hasieran onartu dela jakinarazteko. 1124

## **Xedapen Orokorrak**

#### **ETXEBIZITZA ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA**

**347**

10/2005 DEKRETUA, urtarrilaren 18koa, babes ofizialeko etxebizitzaren erregimenari eta etxebizitzaren eta lurzoruaren inguruko finantza-neurriei buruzko dekretuaren bigarren aldaketa egiteko dena.

Babes ofizialeko etxebizitzaren erregimenari eta etxebizitzaren eta lurzoruaren inguruko finantza-neurriei buruzko abenduaren 30eko 315/2002 Dekretuak, 2002-2005 Etxebizitzaren Plan Gidariaren helburuak kontuan hartuta, babes ofizialeko etxebizitzak eskura-

ANUNCIO por el que se notifica el requerimiento realizado a D. Óscar Brave Gómez en el expediente con número de referencia 522/04 incoado a su instancia sobre el ejercicio de derechos contenidos en la Ley Orgánica 15/1999, de 13 de diciembre, de Protección de Datos de Carácter Personal. 1119

#### **DEPARTAMENTO DE TRANSPORTES Y OBRAS PÚBLICAS**

ANUNCIO por el que se notifican las resoluciones del Viceconsejero de Transportes y Obras Públicas, incoatorias de los expedientes sancionadores abajo indicados, en relación a infracciones de la Ley 16/1987, de 30 de julio, de Ordenación de los Transportes Terrestres. 1120

ANUNCIO por el que se notifican las propuestas de resolución de los expedientes sancionadores abajo indicados, en relación a infracciones de la Ley 16/1987, de 30 de julio, de Ordenación de los Transportes Terrestres. 1121

ANUNCIO por el que se notifican las resoluciones del Viceconsejero de Transportes y Obras Públicas, de los expedientes sancionadores abajo indicados, en relación a infracciones de la Ley 16/1987, de 30 de julio, de Ordenación de los Transportes Terrestres. 1123

#### **AYUNTAMIENTO DE BASAURI**

ANUNCIO relativo a la aprobación inicial por Decreto de Alcaldía n.º 7410 de 28 de diciembre de 2004, del Estudio de Detalle de la Actuación Asistematizada B-19 del Área de Reparto «B Kalero-Basozelai» del suelo urbano residencial del PGOU promovida por Construcciones Kurtxes, S.L., de Lan Leku, S.L.L. 1124

## **Disposiciones Generales**

#### **DEPARTAMENTO DE VIVIENDA Y ASUNTOS SOCIALES**

**347**

DECRETO 10/2005, de 18 de enero, de segunda modificación del Decreto sobre régimen de viviendas de protección oficial y medidas financieras en materia de vivienda y suelo.

El Decreto 315/2002, de 30 de diciembre, sobre régimen de viviendas de protección oficial y medidas financieras en materia de vivienda y suelo, teniendo presente los objetivos del Plan Director de Vivienda 2002-2005, traza unos ejes de actuación que facilitan el ac-

tzeko bide ematen duten jardute-ardatzak taxutzen ditu. Dekretuak, besteak beste, honako helburu hauek lortu nahi ditu: babespeko etxebizitzaren eskaintza handiagotzea, alokatzeko politikak indartzea, etxebizitza hutsak balioan jartzea eta berariazko taldeei tratamendu berezia ematea.

315/2002 Dekretua eta dekretua bera garatzen duten aginduak onartu zirenetik, geroago hobetu diren egoerak ikusi dira, azaroaren 25eko 290/2003 Dekretuan jaso direnak hain zuzen ere.

Berriro ere, eta betiere jendeari etxebizitza eskuratzeko bidea errazteko xedez, Etxebizitzaren Plan Gidariak jasotzen dituen planifikazio estrategiko eta sustapenerako irizpideak eta beste orientabide batzuk oinarri hartuta, dekretu honetan zehazten diren hainbat aldakuntza egin beharra ikusi da.

Horrenbestez, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuak proposatuta, Jaurlaritzaren Kontseiluak 2005eko urtarrilaren 18an egindako bileran aztertu eta onartu ondoren, honako hau

#### XEDATU DUT:

**Lehenengo artikulua.**– Idazketa berria ematen zaio babes ofizialeko etxebizitzaren erregimenari eta etxebizitzaren eta lurzorua inguruko finantza-neurriei buruzko abenduaren 30eko 315/2002 Dekretuaren 6.1 artikuluari, eta aurrerantzean honela geratuko da idatzita:

«1.– Kalifikazioa administrazio-prozedura bat da, eta horren bitartez, babes ofizialeko etxebizitzetarako eskatutako ezaugarriak betetzen direla eta legezkoak direla egiaztatzen da eta, hala badagokio, kalifikazio hori emango da, horrekin loturik dauden ondorioekin eta aplikagarri den araudiarekin bat etorriz.

Dagokion lurralde-ordezkaririk erabakiko du babes ofizialeko etxebizitzaren kalifikazioa ematea bidezkoa den ala ez. Hala ere, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren arteko sustapeneko babes ofizialeko etxebizitzetara dagokienez, Etxebizitza eta Arkitektura zuzendaria izango da horretarako eskumena izango duena. Ondorio horietarako, sustapenaren behin behingo kalifikazioaren emakidak dituen legezko ondorio berberak izango ditu Gainbegiraketa-Txostenak.»

**Bigarren artikulua.**– Ezabatu egiten da babes ofizialeko etxebizitzaren erregimenari eta etxebizitzaren eta lurzorua inguruko finantza-neurriei buruzko abenduaren 30eko 315/2002 Dekretuaren 20. artikulua 5. paragrafoa, eta bestalde, aldatu egiten da 4. paragrafoa, aurrerantzean honela geratuko dela idatzita:

«4- Pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga aitortu beharra dagoenean, Foru-Ogasunetako Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren aitortpenean edo beste zerga-administrazioetan behar bezala azaldutako diru-sarrerak baino ez dira onartuko.»

ceso a la vivienda de protección oficial. Es así que pretende, entre otros, incrementar la oferta de vivienda protegida, reforzar las políticas de alquiler, la puesta en valor de las viviendas vacías y el tratamiento particularizado a colectivos específicos.

Desde la aprobación de este Decreto 315/2002 y las Órdenes que lo desarrollan, se han ido detectando situaciones que han sido objeto de mejora y que quedan plasmadas en el Decreto 290/2003, de 25 de noviembre.

De nuevo, y siempre con la finalidad de facilitar a las personas el poder acceder a una vivienda, dentro de los criterios de planificación estratégica, fomento y otras orientaciones que recoge el Plan Director de Vivienda, se plantean unas modificaciones que el presente Decreto aborda puntualmente.

En su virtud, a propuesta del Consejero de Vivienda y Asuntos Sociales, previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su sesión celebrada el día 18 de enero de 2005,

#### DISPONGO:

**Artículo primero.**– Se da nueva redacción al artículo 6.1 del Decreto 315/2002, de 30 de diciembre, sobre régimen de viviendas de protección oficial y medidas financieras en materia de vivienda y suelo, que tendrá el siguiente texto:

«1.– La calificación constituye un procedimiento administrativo a través del cual se comprueba la legalidad y el cumplimiento de las características exigidas para las viviendas de protección oficial y se procede, en su caso, a su declaración con los efectos que le corresponden, con arreglo a la normativa aplicable.

Será competente para resolver si procede o no otorgar la calificación de las viviendas de protección oficial el/la Delegado/a Territorial correspondiente, salvo en el caso de las viviendas de protección oficial de promoción directa del Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales, en cuyo caso será competente el/la Director/a de Vivienda y Arquitectura. A estos efectos, el Informe de Supervisión tendrá los mismos efectos jurídicos que la concesión de la calificación provisional de la promoción.»

**Artículo segundo.**– Se suprime el párrafo 5 y se modifica el texto del párrafo 4 del artículo 20 del Decreto 315/2002, de 30 de diciembre, sobre régimen de viviendas de protección oficial y medidas financieras en materia de vivienda y suelo, que quedará redactado como sigue:

«4- En el caso de existir obligación de presentar declaración del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, sólo se aceptarán como ingresos acreditados correctamente los ingresos que hayan sido declarados en el Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas de las Haciendas Forales, o en otras Administraciones Tributarias.»

**Hirugarren artikulua.**– Babes ofizialeko etxebizitzaren erregimenari eta etxebizitzaren eta lurzoruaeren inguruko finantza-neurriei buruzko abenduaren 30eko 315/2002 Dekretuaren bigarren xedapen gehigarriaren testuan «sexu-bortizkeria» esamoldearen ordez «genero-bortizkeria» jartzen da.

**Laugarren artikulua.**– Ezabatu egiten da babes ofizialeko etxebizitzaren erregimenari eta etxebizitzaren eta lurzoruaeren inguruko finantza-neurriei buruzko abenduaren 30eko 315/2002 Dekretuaren hirugarren xedapen iragankorra.

#### AZKEN XEDAPENA

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2005eko urtarrilaren 18an.

Lehendakaria,  
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburua,  
JAVIER MADRAZO LAVÍN.

## Agintariak eta Langileria

### Izendapenak, Egoerak eta Gorabeherak

#### JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILA

348

EBAZPENA, 2005eko urtarrilaren 3koa, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Saileko Zerbitzu zuzendaria-rena. Honen bidez ebazten da lantokia Zumarragan duen heziketa-arduradun lanpostua zerbitzu eginkizunen bidez betetzeko deialdia.

Heziketa-arduradunaren lanpostua, 2832/1 kodekoa eta administrazio publiko guztiei irekia, zerbitzu eginkizunen bidez betetzeko deialdi publikoa iragartzeko ebazpena eman zuen, 2004ko azaroaren 6an, saileko Zerbitzu zuzendaria (213. zenbakiko EHAA), eta ebazpen horretan xedatutakoarekin bat etorritz, ondokoa

**Artículo tercero.**– Se sustituye la expresión violencia sexista por violencia de género en el texto de la Disposición Adicional Segunda del Decreto 315/2002, de 30 de diciembre, sobre régimen de viviendas de protección oficial y medidas financieras en materia de vivienda y suelo.

**Artículo cuarto.**– Se suprime la Disposición Transitoria Tercera del Decreto 315/2002, de 30 de diciembre, sobre régimen de viviendas de protección oficial y medidas financieras en materia de vivienda y suelo.

#### DISPOSICIÓN FINAL

El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 18 de enero de 2005.

El Lehendakari,  
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

El Consejero de Vivienda y Asuntos Sociales,  
JAVIER MADRAZO LAVÍN.

## Autoridades y Personal

### Nombramientos, Situaciones e Incidencias

#### DEPARTAMENTO DE JUSTICIA, EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL

348

RESOLUCIÓN de 3 de enero de 2005, de la Directora de Servicios del Departamento de Justicia, Empleo y Seguridad Social, por la que se resuelve la convocatoria para la provisión, por el sistema de comisión de servicios del puesto Responsable Educativo con destino en Zumarraga.

De conformidad con lo dispuesto en la Resolución de 6 de noviembre de 2004 de la Directora de Servicios del Departamento por la que se anunciaba la convocatoria pública para la provisión por el sistema de comisión de servicios del puesto Responsable Educativo código 2832/1, abierto a todas las Administraciones Públicas (BOPV n.º 213),